
AURKEZPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eta Nafarroako Foru Erkidegoko 2005erako **aurrekontu-proiektuak onartuta** daude. Aurrekontu-sailak malguak diren arren, hau da, benetan egiten den gastua aurrekontuetan islatutakoaren ezberdina izan badaiteke ere, aurrekontuak onartuta edukitzeak jarduteko askatasun handia ematen die gobernuei.

Nafarroan, Gobernuak aurrekontuak oztoporik gabe onartzeko behar besteko gehiengoa zuen. **EAE**ko kasua, ordea, bestelakoa zen, eta onarpenak **harridura** handia eragin zuen. Berez, hiruko gobernuak (kasu honetan Unidad Alavesaren babesarekin) oposizioaren gainerakoak beste boto zituen, eta bozketan izandako hutsegite baten zioz onartu ziren aurrekontuak, berdinketa gertatu beharrean (berdinketak kontuak atzera botatzea eragingo zuen). Beraz, bozketan egon ziren parlamentarien gehiengoaren kontra onartu ziren aurrekontuak.

Hego Euskal Herriko (HEH) **eztabaida politikoak bazterrean uzten ditu** gure bizi-kalitatean zuzeneko eragina duten eduki zehatzak, eta, ildo horretan, aurrekontuak ez dira salbuespen. Hori dela eta, parte-hartzean oinarrituriko benetako eztabaida eskatzen dugu, aurrekontuen inguruan ere. Dirudienez, Gobernuan edo oposizioan egoteagatik, jarrera bat edo beste hartu behar da sistematikoki, edukiak aztertu eta eztabaidatu gabe. Horrek, edukiok ez hobetzeaz gain, gure ongizate-egoerari inola ere laguntzen ez dion ezagutzarik eta hausnarketarik ezera darama gizartea. ELAren iritziz, aurrekontuak alderdi politikoek adierazten digutena baino askoz gehiago dira. Aurrekontuen menpe daude gure bizitzarekin loturiko alderdi asko, hala nola osasun, hezkuntza, etxebizitza, gizarteratze eta abarretan egiten den gastua; alegia, gizarte-ereduarekin zerikusia duten eta guztion bizi-baldintzetan eragina duten gaiak.

Aurrekontuak atzeragarriak eta antisozialak dira, baina ez dugu hori funtsik gabe esaten, aurrekontuen azterketak ondorio horretara garamatzaten datu argiak ematen dizkigulako baizik. Aurrekontuei buruzko informazio erreala, objektiboa eta zehatza eta beraien bilakaera aztertzea gure eginbeharra da, batez ere gehien interesatzen zaizkigun sailai dagokienez, eta, halaber, gure eginbeharra da egin beharko luketenek hasten ez duten eztabaidari ekiten saiatzea. Horretantxe datza dokumentu honen garrantzia.

2005eko otsailean, Europako konstituzioari buruzko erreferenduma egingo da, eta, une honetan, gertaera horri begira dago Europaren gaineko eztabaida osoa. Hala ere, dokumentu honetan ikusiko dugunez, HEHko gizarte-gastua oso **urrun** dago **Europako gastutik**. Horregatik eta aipatu dugun eztabaidarik ezagatik eman diogu Hego Euskal Herriko 2005erako aurrekontuen azterketari *Norantz garamatzate aurrekontuek?* izenburua.

1. PROPAGANDA ETA ERREALITATEAREN MANIPULAZIOA

Eusko Jaurlaritzaren (EJ) eta Nafarroako Gobernuaren (NG) jarduera politikorik biziena propaganda egitean datza. Hortaz, nahiz eta benetan gutxi egin, asko egiten delako sentsazioa ematen dute.

Politika horrek, askotan, informazioa ezkutatzea eta errealitatea desitxuratzea dakar. Horixe egin du Nafarroako Gobernuak, 2005erako gastu publikoan planteatu duen murrizketa gogorra ezkutatzeko, zerga-arintzeen eta bestelakoen ondorioz ez bildu ez gastatu egiten ez diren sarrerak eta gastuak aurrekontuetan sartzean. Horren eraginez, datuak ezin dira aurreko ekitaldietakoekin konparatu.

2. SUPERABITA, GIZARTE-PREMIAK ESTALI ORDEZ

Gure instituzioek, ohi bezala, **aurrekontu-oreka** planteatzen dute 2005erako (baina ekitaldiak superabitarekin ixteko joerari eutsi ohi diote gero). Europako errealitatea guztiz ezberdina da, bertako estatu gehienek defizitarekin ixten baitituzte ekitaldiak. Ildo horretan, Euroaren Eremuan, BPGaren %2,1eko defizita aurreikusten da 2005erako; gure administrazioentzat pentsaezina da hori.

Bestalde, azken urteetan, gure instituzioek ez dute **zor publiko-rik** jaulki eta, ondorioz, alderdi horrek ekonomian duen pisua urrituz doa urtez urte.

Esan dugunez, ekitaldiak superabitarekin ixten dira eta ez da zor publikorik jaulkitzen, nahiz eta lehenengo mailako gizarte-premia asko estali gabe dauden. Beraz, agidanez, gure instituzioek garrantzi handiagoa ematen diete oreka finantzarioari eta zor publikoaren murrizketari, biztanleriaren bizimodu duina, autonomia eta kalitatekoa bermatzeari baino.

3. GASTU FISKALAK: AURREKONTUETAKO ITZELEZKO MURRIZKETA

Gastu fiskalak zergen bilketan salbuesten diren diru-kopuruak dira, eta nabarmenki murrizten dute bildutako zenbatekoa, bai eta, ondorioz, gastu publikoa ere. EAEn, urteko BPGaren %10era helitzen dira gastuok, eta Nafarroan, %8,8ra. Gainera, gastu fiskalak ez dira aurrerakoiak, biztanle behartsuenentzako onura ekarri beha-


rrean, onurak gutxien behar dituztenei egiten dietelako, nolabait, mesede. Gauzak horrela, hobe litzateke kopuru horiek biltzea eta gastu publiko handiagoa, batez ere gizarte-gastu handiagoa, egiteko erabiltzea.

4. ILARAKO AZKENAK GIZARTE-GASTUARI DAGOKIONEZ

15 estatu kidek osatzen zuten Europako Batasuneko estatuetan (15-EB) **gizarte-gastua** BPGaren %27,5koa da, Hego Euskal Herrian %20koa delarik. Horrek erakusten duenez, BPGaren 7,5 puntu besteko defizita daukagu, haiekin alderatuta. Euskal Herriko Hegoaldeko gizarte-gastuaren ehunekoa 15-EBkoaren berdina balitz, 2005ean 5.071 milioi euro gehiago bideratu beharko lirateke gizarte-gastura, eta horrek zuzeneko eragina izango luke euskal biztanleriaren bizi-kalitatean. Beraz, 15-EBrekin alderatuta, HEHn 1.880 euro gutxiago bideratzen dira pertsonako urtean, gizarte-gastura. Gainera, 15-EBren eta gure artean dagoen jauzia txikiagotu ordez, gero eta handiagoa da. Hala ere, aurrekontuak aurkezten dizkigutenean, aurrekontu sozialak direla esaten digute, EAEn, adibidez, aurrekontuetako gastuaren %70 baino gehiago gizarte-gastura zuzentzen dela argudiatuz (horixe da logikoena, Hego Euskal Herriari transferitutako eskumenen artean osasuna eta hezkuntza daudelako, hots, gure gastu publikoaren zatirik handiena xurgatzen duten sailak). Aipagarriena ez da aurrekontutik gizarte-gastura zenbat bideratzen den, gizarte-gastua nahikoa den ala ez eta Europako batez bestekoaren gainetik ala azpitik gauden baizik.

5. ILARAKO AZKENAK OSASUNeko GASTU PUBLIKOAN

Hego Euskal Herriko **osasuneko** gastu publikoa 15-EBkoarekin alderatzen badugu, eskueran daukagun informazioa dagokien 15-EBko 14 estatu kideek HEHk baino gastu handiagoa egiten dute. Zehazki, EAEn da (BPGaren %4,3) osasuneko gastu publikorik txikiena, eta Nafarroakoa (BPGaren %4,9) bigarren txikiena.


OSASUNeko GASTU PUBLIKOA (BPG %). 15-EB, 2002


Iturriak: Eurostat, Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra

6. ILARAKO AZKENAK HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOAN

Hezkuntzako gastu publikoaren egoera antzekoa da, baina, kasu horretan, aztertutako 14 estatuen aldean, Nafarroa da gastu txikiena duena (BPGaren %3,4), eta bigarren txikiena EAEkoa da (BPGaren %3,6).

HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA (BPG %). 15-EB, 2000



Iturriak: Eurostat, Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra

Beraz, gure aurrekontuak sozialak direla esaten digutenean egia ez dioten bezala, gure osasun- eta hezkuntza-sistemak gorestean egiten duten propaganda guztia ere ez dator bat arlo horietan egiten duten ahalegin finantzarioarekin, 15-EBko estatuak egiten dutena baino askoz urriagoa da eta. Egia da aurrekontu-zuzkidura ez dela ematen diren prestazioen isla bakarra, baina arlo bakoitzean egiten den ahalegin ekonomikoa erakusten du, eta, gure kasuan, egoera hobetzeko aukera badagoela uzten du agerian.

7. ETXEBIZITZARI BURUZKO POLITIKA, BIZIMODU DUINA LORTZEKO ESKASA

Ehunka mila pertsonak, batez ere gazteek, ezin dute gaur egun etxebizitzarik lortu, eta etxebizitzako gastu publiko eskasa oso urrun dago eskubide hori bermatu ahal izatetik.

Gastu fiskalen edo zerga-arintzeen bidez biltzeke uzten den dirua bildu eta etxebizitzako gastu publikora bideratuko balitz, oraingoaren bikoitza litzateke gastu hori. Horrela, babespeko eta bereziki, alokatzeko etxebizitzaren eskaintza handiagoa egin, lagun-

tza publikoak behartsuenei zuzendu eta, epe luzera, etxebizitza libreen errentak eta prezioak jaitsaraz litezke.

8. ZERGEN ARLOKO BIDEGABEKERIA

Zerga-iruzurra gizarte-bidegabekeria itzela da, soldatakoak diren errentek soldatakoak ez direnek baino zerga gehiago ordaintzea eragiten duelako, nahiz eta, berez, errenta txikiagoak izan. Oso garrantzitsua da egoera hori zuzentzea, eta, horretarako, ezinbestekoa da gure instituzioek esku hartzea. Arlo horretan egiten de ahalgin finantzario murrizak, ordea, ez du inola ere hori ahalbidetzen. Nafarroako ikuskapenei eta ikuskatzaileei buruzko informazio zehatzak agerian uzten ditu zerga-iruzurrarekiko permitibitatea eta soldatakoak ez diren errenten aldeko tratu mesedegarria.

Zerga-iruzurra sarreren murrizketa eta, ondorioz, gastu publikoarena eragiten dituzten faktoreetako beste bat da.

0. SARRERA

Iaz, Eustatek aldatu egin zuen Barne Produktu Gordina (BPG) kalkulatzeko oinarritzat hartzen den urtea, eta 2000.a ezarri zuen oinarri-urtetzat. Beraz, hauxe da BPGari buruzko informazioa oinarri-urte berriarekin erabiltzen dugun lehenengo urtea eta, horregatik, dokumentu honetan ageri diren aurreko urteetako BPG ehunekoak ez datoz bat orainarte ematen genituenekin.

1. GASTU PUBLIKOA EAEko EKONOMIAN

Eusko Jaurlaritzak (EJ) 2005ean **7.117,1 milioi euroko** gastu publikoa egitea aurreikusi du; gastu hori hurrengo taulan ikusten den bezala dago banatuta.

Osasun Saila da oraindik ere **aurrekontuan garrantzirik handiena** duena (aurrekontu osoaren %32,2), ondoren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (%26,7) eta Herrizaingo Saila (guztizkoaren %7,2) dituelarik, nahiz eta 2005ean hiru gastu horiek BPGan duten pisua 0,1 puntu murriztu den. Aurrekontuan islatutako zenbatekoen araberako ordenak 2004ko bera izaten segitzen du, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailarena izan ezik, 5,9 milioi euro murriztuta seigarren tokitik zazpigarrenera igaro da eta.


2005eko AURREKONTU PROIEKTUA
ETA 2004koarekiko BILAKAERA. EAE

	2005			2004
	MILIOI€	Guttiz. %	BPG %	BPG %
Osasuna	2.294,5	32,2	4,3	4,4
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa	1.897,7	26,7	3,6	3,7
Herrizaingoa	509,3	7,2	1,0	1,1
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza	397,3	5,6	0,7	0,7
Industria, Merkataritza eta Turismoa	285,6	4,0	0,5	0,5
Kultura	208,4	2,9	0,4	0,4
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	206,4	2,9	0,4	0,4
Garraioak eta Herri Lanaks	191,9	2,7	0,4	0,3
Nekazaritza eta Arrantza	147,6	2,1	0,3	0,3
Ogasuna eta Herri Administrazioa	146,4	2,1	0,3	0,3
Lurralde Antolamendua eta Ingurumena	104,8	1,5	0,2	0,2
Beste batzuk	727,2	10,2	1,4	1,1
GUZTIRA	7.117,1	100	13,4	13,4

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Eustat

2005erako aurrekontuetan jasotako gastua urtealdi horretako **BPGaren %13,4koa** da (aurrekontuetan erabili diren hazkunde- eta deflazio-aurreikuspenen arabera). Beheko grafikoan, gastu publikoaren pisuak EAEko ekonomian 1998 eta 2005 bitartean izan duen bilakaera ikus daiteke. Aldi horretan zehar aldakuntza txikiak gertatu badira ere, 2005eko gastu publikoak ekonomian duen pisua **1998ko bera** da, bai eta oraingo gobernua eratu zeneko **2002. urteko bera** ere. Oraingo gobernuari dagokion aldiari erreparatzean ikus daitekeenez, lehenengo urtean EJren gastu publikoaren pisua BPGaren %0,13 hazi zen, baina hurrengo urtealdietan jaitsiz joan da, 2005eko gastu-ehunekoa 2004koa baino urrixegoa eta 2003koa baino hamarren bat txikiagoa izateraino.

**GASTU PUBLIKOAREN PISUAREN BILAKAERA (BPG %).
EAE, 1998-2005**



Iturriak: Eusko Jaurlaritza eta Eustat

2. DIRU SARRERAK

a) Aurrekontuetako emaitza

2005erako aurrekontu-proiektuaren arabera, urtealdia 570.697 euroko **defizitarekin** ixteko asmoa dago; garrantzi gutxiko zenbaiteko hori 2003 eta 2004 urtealdietarako aurreikusten zirenen antzekoa da (237.040 eta 469.668 euro, hurrenez hurren).

Hala ere, aurrekontu-proiektuetan islatutakoa bete beharrean, **aipatutako bi urtealdi horiek superabitarekin itxi ziren** (149 milioi eurokoa 2003an eta 174,7 milioi eurokoa 2004an). Horren arabera **bidezkoa da pentsatzea** 2005erako aurrekontuetan jasotako defizit txikia ere ez dela gertatuko, eta, berriro ere, **urtealdia superabitarekin itxiko dela**.

URTEZ URTE AURREIKUSITAKO EMAITZEN ETA BENETAKOEN ARTEKO KONPARAZIOA. EAE, 2002-2005 (Mila eurokotan)

	AURREKONTUA	EMAITZA
2002		+240.500
2003	-237,0	+149.007,4
2004	-469,7	+174.684,7
2005	-570,7	

Iturria: Eusko Jaurlaritzza


b) Gastu fiskalak

Ejren aurrekontuak gastu fiskalen zenbatespena (Foru Aldundien zerga-politikaren ondorioa) ere jasotzen du. 2005ean, gastu fiskalak **5.307,9 milioi eurokoak** izango direla aurreikusten da, hau da, Foru Aldundiek urtealdi horretan bilduko luketenaren %34,3. Beraz, gastu fiskaletan aurreikusitako diru-kopuru hori benetan bilduko balitz, Aldundiek 15.485,1 milioi euroko sarrerak izango lituzkete, hots, EAeko hiru ogasunek benetan bilduko dutena (10.177,3 milioi euro) baino %52,2 gehiago.

BPGaren arabera zenbatetsiz gero, gastu fiskalak 2005eko **BPGaren %10ekoak** dira.

Gastu fiskal horien %47,3 zuzeneko zergei dagokie, eta %52,5, zeharkakoei. Gastu fiskalik handiena eragiten duen zerga BEZa da (guztizkoaren %47,6), eta horren hurrengoak PFEZ (%33,2) eta Sozietateen gaineko Zerga (%9,7), enpresek 514,8 milioi euro poltsikoratzea eragiten duena, hain zuzen. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga da diru-sarrera teorikoei buruz gastu fiskalik handiena sortzen duena (sarrera teorikoen %79,4), atzean Ondarearen gaineko Zerga (%56,2) eta PFEZa (%35,1) dituelarik.

GASTU FISKALARI ETA AURREIKUSITAKO SARREREI SARRERA
TEORIKOETAN DAGOKIEN %. EAE, 2005



Iturria: Eusko Jaurlaritza

Gastu fiskaletan aurreikusitako kopurua, gainera, **gorantz** joan da 2002tik aurrera, eta azken ekitaldi honetan izan du igoyerarik handiena. Ildo horretan, 2002ko gastu fiskala Aldundien sarrera teorikoen %25,7 zen, 2003koa %26,1, 2004koa %25,3, eta 2005ekoa, esan dugunez, %34,3.

c) Zor publikoa


1999ra arte, EJK aldizkako zor-jaulkipenak egin zituen; urte horretatik aurrera, ordea, jaulkipenok murriztuz joan ziren. Baina egitatea bera baino kezkarriagoa errealitatea ezkutatu nahia da, horren gaineko informazio nahasia eta faltsua emanez. Era horretan, aurrekontu-proiektuetan, berez egingo ez diren zor-jaulkipenei dagozkien diru-kopuruak hasi dira islatzen, edo agian erabiliko ez diren kreditu-lineak jaulkitakotzat ageri dira, zor publikoak ekonomian benetan duen pisua desitxuratuz. Esaterako, proiektuan esaten den arabera, azken hiru urteetan joera-aldaketa gertatu da zorraren bolumenaren murrizketan, "dezelerazio" ekonomikoaren ondoriozko aurrekontu-premia handiagoei aurre egiteko. Aurre-

kontuetan jasotako balizko zorra benetan erabiltzen dela frogatu arte, baieztapen hori gezurrezkotzat hartu eta zor publikoaren pisua benetakoa baino handiagoa dela eta hazkunde ekonomikoa txikiagoa den garai honetan esku-hartze publikoa biziagoa dela sinestarazi nahi digula pentsatuko dugu.

2005erako aurrekontuen arabera, administrazioak bere gain har dezakeen gehieneko zorra 399 milioi eurokoa da. Oraingoan ere, erabil daitekeen edo berriro ere erabiltzeke utz daitekeen kreditu-linea bat azaltzen da. EJ 2003ko aurrekontuetan jasotako kreditu-linea erabiltzen hasi da (240 milioi euro), baina erabiltzeke utzi zuen 2002ko aurrekontuetan jasotakoa (367 milioi euro). Horregatik uste dugu 2004rako islatutako obligazioak ez dituztela jaulkiko, eta 2005erako aurreikusitako kreditu-linea ere ez dutela erabiliko.

Ondorioz, zor biziak EAEko ekonomian duen pisu erreala **arian-arian eta nabarmenki murrizten ari da**, 1998an BPGaren %5,9 izatetik 2004an %1,9 izatera igarota.

ZOR PUBLIKOAREN PISUAREN BILAKAERA (BPG %).
EAE, 1998-2005




Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseilua (EGK) eta Eustat

3. OSASUNA

2005erako aurrekontuetan, sanitatean zehaztutako gastua 2.294 milioi eurokoa da, hots, **BPGaren %4,3koa**. Inbertsio Ekonomiko eta Sozialen Plan Bereziaren barruan, 6 milioi euroko gastua aurreikusten da osasuneko finantzaketa eta kontrataziorako; hala ere, inbertsio horrek ez du eraginik osasuneko gastuaren pisan, osasun sailarentzat aurreikusten den ehunekoa, zuzkidura hori barne, BPGaren %4,3koa baita.

Osasuneko gastuak izan duen bilakaera aztertzean, nolabaiteko antzekotasuna ikusten dugu gastu publiko osoaren bilakaerarekin. Izan ere, epealdian zehar gorabehera txikiak izan diren arren, osasuneko gastu publikoaren pisuak BPGaren %4,3koa izaten segitzen du 2005ean ere, hots, 1998an eta 2002an bezalaxe.

OSASUNeko GASTU PUBLIKOAREN PISUAREN
BILAKAERA (BPG %). EAE, 1998-2005



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Euskal EGK eta Eustat


Farmaziarako eta prestazio ortoprotesikorako, 496,9 milioi euroko gastua jaso da aurrekontuetan; horrek BPGaren %0,93a adierazten du, eta gezurtatu egiten ditu errezeta medikoek eragiten duten gastu handiaren inguruko baieztapen alarmistak.

4. HEZKUNTZA

Ejk Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarentzat 2005erako aurreikusi duen zuzkidura 1.897,7 milioi eurokoa da, hau da, ekitaldiko **BPGaren %3,6**. Era berean, 7,5 milioi euroko zuzkidura bat dago Inbertsio Ekonomiko eta Sozialen Plan Bereziaren barruan, baina, horren bolumen urria dela eta, Hezkuntza Sailaren pisuak BPGaren %3,6koa izaten segitzen du, sail hori barne hartuta ere.

Sail horren pisuak aztertutako epealdi osoan zehar izan duen bilakaera ez da gastu osoak edo osasuneko gastuak izan duen bilakaeraren berdin-berdina. Zehazki esateko, 2002an, Hezkuntza Sailaren pisua mantendu egiten zen 1998koaren aldean, baina **oraingo gobernuarekin BPGaren 0,21 puntu jaitsi da**, 2002an BPGaren %3,78koa izatetik 2005ean BPGaren %3,57koa izatera igaro baita.

HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOAREN PISUAREN
BILAKAERA (BPG %). EAE, 1998-2005




Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Euskal EGK eta Eustat

Hezkuntzaren atal garrantzitsuenetan zer gertatzen den aztertean ikus daitekeenez, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako gastu publikoak, Haur eta Lehen Hezkuntzakoak, Uni-

bertsitateko Irakaskuntzakoak eta hezkuntza-sistema euskalduntze-koak jaitsiera txikia izan dute, bai 1998koarekin bai 2002koarekin konparatuta. Zehatz esanda:

- Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako* 2005erako gastu publikoa (BPGaren %1,46) BPGaren 0,09 puntu jaitsi da 1998koaren (BPGaren %1,55) aldean, eta BPGaren 0,14 puntu, 2002koarekin (BPGaren %1,6) alderatuta.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako* 2005erako gastu publikoa (BPGaren %1,13) BPGaren 0,08 puntu jaitsi da 1998koarekin (BPGaren %1,21) konparatuta, eta BPGaren 0,1 puntu, 2002koaren (BPGaren %1,23) aldean.
- Unibertsitateko Irakaskuntzako* 2005erako gastu publikoa (BPGaren %0,41) BPGaren 0,035 puntu murriztu da 1998 eta 2002koarekin (BPGaren %0,45) erkatuta.
- Hezkuntza-sistema euskalduntzeko* 2005erako aurreikusitako gastu publikoa (BPGaren %0,08) BPGaren 0,05 puntu jaitsi da 1998koaren (BPGaren %0,13) aldean, eta 2002koaren berdina da.

HEZKUNTZAREN ATALEN PISUAREN BILAKAERA (BPG %). EAE, 1998-2005



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Euskal EGK eta Eustat

5. ETXEBIZITZA

2005ean Etxebizitza Sailak 150,3 milioi euroko gastua izango duela aurreikusten da, alegia, **BPGaren %0,3koa besterik ez**. Halaber, Inbertsio Ekonomiko eta Sozialen Plan Bereziaren bitartez 3 milioi euroko gastu gehigarria egitea dago pentsatuta, baina, oraingoan ere, zenbateko horrek ez du aldarazten etxebizitzan egiten den ahalegin ekonomikoaren pisua, eta beraz, inbertsio hori sartuta ere, BPGaren %0,3koa izaten segitzen du. 2004an hasitako plan bereziak sartuta ere (goian azaldu bezala inbertsiook ez dute aldarazten sail horretako gastuak ekonomian duen pisua), etxebizitzako gastua 2002ko bera da (2002an, gobernu-aldaketaren zioz, hazkunde proportzional nabaria izan zuen, nahiz eta, hala ere, kopuru txikia izan).

Etxebizitzako gastu publikoa urria izateaz gain, **urtealdi bazuetan ez da gastatu aurrekontuetan islatutako kopurua**, hau da, aurrekontuetan etxebizitzaren arazoa konpontzeko zehazten diren baliabide murrizkak erabili ere ez dira egin. 2002an, adibidez, ekitaldi horretako aurrekontuetan jasotakoaren %94,5 baino ez zen gastatu, eta 2004an, %97,9 (2003an, aurrekontuetan islatutakoa baino %3,7 gehiago gastatu bazen ere).

Interesgarria da etxebizitzako gastu publikoa arlo horretako **gastu fiskalekin** alderatzea. 2005ean, etxebizitza arloan gastu fiskalen zioz biltzeke geratuko den kopurua 397,2 milioi euro izatea espero da, hau da, **2,6 bider etxebizitzako gastu publikorako zehaztutako diru-kopurua**.

Era berean, **2002-2005 Etxebizitza Planean jasotako helburuak ere ez dira betetzen ari**; 2002an, esaterako, Planean aurreikusitako etxebizitza babestuen %89,6 besterik ez ziren eraiki, eta 2003an, %96,2. Ez dugu ahaztu behar, gainera, bere garaian esan genuenez, plan hori guztiz eskasa dela ELAk proposatutako helburua lortzeko, alegia, HEHn urtero babespeko 20.000 etxebizitza eskaintzea.

6. LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA ETA INGURUMENA

Proiektuaren arabera, 104,8 milioi euro bideratuko dira Lurraldearen Antolamendu eta Ingurumen Sailera. Horrek nolabaiteko **jaitziera** erakusten du 2004ko aurrekontuen aldean, eta BPGaren 0,3 puntuko urripena 2003koekin erkatuta, nahiz eta 2002koekin alderatuta BPGaren %0,1 hazi den. Ez kopuruak ez bila-kaerak ez diete erantzuten arlo horretan aurkezten zaizkigun premia gero eta handiagoekin, eta argi uzten dute EJK arlo horretako arazo larriak zuzentzeko duen borondate eskasa, egiten duen pro-

pagandaz, finantza-baliabideak gastatzeaz gain, errealitatearekin inondik ere bat ez datorren irudia erakutsi nahi duen arren. Lurraldearen antolamendua bigarren mailako ataza da oraingo gobernuarentzat, nahiz eta azpiegituren, energiaren eta beste hainbat gairen gaineko eztabaidari ekiteko funtsezko ardatza izan beharko lukeen.

7. GARRAIOAK ETA HERRI LANAK

2005erako, 191,9 milioi euroko aurrekontua, hots, BPGaren %0,36, esleitu zaio Garraio eta Herri Lan Sailari. Ehuneko hori **murritzuz joan da apurka-apurka**, 2002tik hona BPGaren puntu erdia jaisteraino.

Sail horrek barne hartzen duen **trenbide**-ataleko gastua BPGaren %0,16 inguruan mantendu da 2002tik aurrera. Frogatuta dago tren konbentzional egokia garraibiderik onena dela, eta horixe aldarrikatzen ari gara, gu bezala Euskal Herriarentzako gizartetrenaren aldeko plataformako kide diren beste mugimenduekin batera. Plataforma horrek oraingo trenbide-sarea hobetu beharra aldarrikatzen du, errepidezko bidaiari- eta merkantzia-garraioetako asko trenbideetara aldatu ahal izateko, errepideen gehiegizko erabilpenak, bide-segurtasunik eza ekartzeaz gain, ingurumen-inpaktu larria eragiten baitu, CO2 isurpen handiak direla eta. Hala ere, arlo horretako aurrekontu-zuzkidurak eta bilakaerak ez dute Ejren aldetik interesik erakusten.

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiekturako, 1,2 milioi euro zehaztu dira 2005erako aurrekontuetan, "*Administrazio Zentrolarekiko lankidetzarako*". Kopuru hori, 2004ko eta 2003ko kopurua baino %59 eta %68 txikiagoa da, hurrenez hurren; horrek, beraz, kontraesan nabaria erakusten du Ejko Garraio Sailak obren hasierari buruz adierazi duenarekin, eta horrelaxe salatu dugu aipatutako plataformatik hainbat aldiz. Plataforma hori AHTaren kontra dago, ingurumen-inpaktu eta kostu ekonomiko handiegiak eragiteaz gain, ez duelako merkantzien garraioa bermatzen, eta, gainera, euskal gizartearen zati txiki bati baino ez liokelako zerbitzua emango.

8. BIZIMODU DUINA, AUTONOMOA ETA KALITATEKOA

Oinarrizko Errenta (OE)

2005ean Oinarrizko Errentarako aurreikusitako gastua (zabalgaria) 134 milioi eurokoa da, hots, **BPGaren %0,25ekoa**, 2004ko **ehuneko berbera**, eta 2002 eta 2003ko ia berdina.

Aurrekontu-proiektuaren idazkuntza anbigua da atal horretan, baina interpretatu daitekeen arabera, aurrerantzean Eusko Jaurlaritzak agian ez du hartuko Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata (LAGS) Oinarrizko Errenta zehazteko erreferentziatzat, LAGSak azken urteetan galdutakoaren zati bat berreskuratu duela, eta orain Efektu Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoa (EAEAP) erabiliko du haren ordean. Horrela, **EJK eragotzi egingo luke Oinarrizko Errenta jasotzen dutenek LAGSak izandako berreskurapen horren onura hartzea**, eta agerian utziko luke gehien behar dutenei bizimodu duina bermatzeko duen borondate hutsala.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL)

2005erako aurrekontuetan, 25 milioi euro (30 milioi eurora zabaldu daitezkeenak) zehaztu dira laguntza horietarako, hau da, BPGaren %0,05. Horren arabera, aurreko urteetako berdina izango da (BPGaren 0,01 puntu hazi da 2003 eta 2004koen aldean, eta 0,02 puntu, 2002koarekin erkatuta).

Aurreko urteetako esperientziak erakusten digunez, 2005erako aurrekontuetan GLLetarako zehaztutako diru-kopurua **ez da inolara ere nahikoa, dirua urtea amaitu baino lehen amaitzen denez**, laguntzak jasotzen dituztenen premiak estaltzeke geratzen baitira ordutik aurrera.

Aurrekontuen memorian adierazten denez, *"GLLe dagokienetz, etxebizitzarako laguntza osagarriak bereizi egin nahi dira benetako premia larrietatik"*. Baina etxebizitza lortzeko zailtasuna dela eta, **GLLak jasotzen dituztenek beraien %80 inguru bideratzen dute urtero etxebizitza-gastuetara**, eta zuzkidura hori ez handitzeak errepikarazi egingo du egoera.

Aurrekontuen memoriak dioenari jarraituz, *"OEa eta GLLak pertsona eta talde guztiak gizarteratzeko ezinbesteko lehenengo urratsa dira. Laguntza horien helburua gutxieneko segurtasun ekonomikoa bermatzea da, familiek premiarik oinarrizkoenei aurre egin ahal izateko eta beraien gizarteratzea lortzeko lehenengo maila izan dadin"*. Dena den, 2005erako aurrekontuetan bi atal horietarako zehaztutako diru-kopuruek eta horien bilakaerak **asmoen adierazpen huts** bihurtzen dute lerroalde hori.

9. EUSKARA

Eusko Jaurlaritzak 91,7 milioi euroko aurrekontua, hots, **BPGaren %0,17koa**, zehaztu du euskararen arlorako. Ahalegin hori berdin-berdin **mantendu da** azken urteetan, inolako aurrerapenik gabe. EJK euskararen alde gastatzen duena hiru ataletan neurtzen da, eta hiruetan 2002tik aurrera egindako ahaleginak bere horretan segitzen du:

- *Hezkuntza-sistema euskalduntzea*: BPGaren %0,08 bideratzen da horretara.
- *Hizkuntza Politika*: BPGaren %0,07ko ahalegina egiten da.
- *Administrazioa euskalduntzea*: BPGaren %0,02ko zuzkidura erabiltzen da horretarako.

EJK EUSKARAREN ALDE EGITEN DUEN AHALEGINAREN BILAKAERA, 2002-2005

	2002		2003		2004		2005	
	€	BPG %	€	BPG %	€	BPG %	€	BPG %
Hezkuntza Sistema euskald.	37.509,6	0,08	35.283,7	0,07	41.599,3	0,08	44.510,8	0,08
Hizkuntza Politika	32.091,6	0,07	34.991,6	0,07	33.518,3	0,07	37.033,7	0,07
Administrazioa euskalduntzea	8.919,0	0,02	9.319,0	0,02	9.319,0	0,02	10.153,5	0,02
GUZTIRA	78.520,2	0,17	79.594,3	0,17	84.436,6	0,17	91.698,0	0,17

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Euskal EGK eta Eustat

0. SARRERA

2005erako Aurrekontu Orokorren proiektua metodologia berri baten arabera egin da, eta **gastu fiskalen zati bat (236,7 milioi euro) dago erantsita** bai gastuen atalean bai diru-sarrerenean (proiektuak "onura fiskal" deritzen arren, EAEn bezala esango diegu). Metodologia horrek informazio desitxuratua eta faltsua ematen digu, 2005erako aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuek ez dutelako errealitatea islatzen. Aldaketa horren bidez, **informazioa ezkutatzea, nahastea sortzea eta errealitatea mozorrotzea** lortu dute. **Ez da kasualitate metodologia-aldaketa urtealdi honetan egitea, gastu publikoaren pisua nabarmenki murriztu duten urte berdinean halegia.**

Onura fiskalen zenbatekoak dagozkien Sail eta idazpenetatik **ateratzea** lortu dugu, horrela aurreko urteetako kopuruekin alderatutako azterketa homoginoa egin eta benetako gastu publikoa ebaluatu ahal izateko. Ondorioz, onura fiskalak erantsi diren sailetan **ateratzen zaizkigun kopuruak ez datoz bat proiektuan aurkeztutakoekin**. Ondoko taulan gastu fiskal zehatzak, bakoitzaren kopurua eta bakoitzari dagokion saila aztertu ahal ditugu.

**AURREKONTU PROIEKTUAN SARTUTAKO
GASTU FISKALA. NAFARROA, 2005**

GASTU FISKALAK	EUROAK	SAILA
Etxebitzak alokatzeagatik	3.914.000	Ingurumena, Lur. Ant. eta Etxebizitza
Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik	120.045.000	
Enplegua sortzeagatik	14.286.000	Ind., Teknologia, Merkataritza, Lana
Inbertitzeagatik	83.574.000	
I+G+Bn inbertitzeagatik	7.570.000	
Pentsioen ziozko kenketen ondorioz	7.269.000	Gizarte Ongizatea, Kirola, Gazteria
Interes kultureleko ondasunetan inbertitz.	5.000	Kultura eta Turismoa
GUZTIRA	236.663.000	

Iturria: Nafarroako Gobernua

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren gastu publikoaren pisua aztertzean, hauxe da Barne Produktu Gordina (BPG) **datuen artean darabilgun lehenengo urtea**, orain arte Balio Erantsi Gordinari (BEG) buruzko informazioa besterik ez baikeneukan. Beraz, orain arte Nafarroako Gobernuaren ahaleginari buruz eman ditugun ehunekoak aurrerantzean aztertuko ditugunen ezberdin samarrak izango dira. Kasu gehienetan, BPGa erabiltzen da horrelako alderdiak aztertzeko; horregatik, aurrerantzean, Hego Euskal Herriaren gaineko analisi homogeneoa egin ahal izango dugu gai horri eta beste batzuei buruz.

1. GASTU PUBLIKOAK NAFARROAKO EKONOMIAN DUEN PISUA

2005erako aurrekontu-proiektuak **2.911,6 milioi euroko** gastu publikoa aurreikusten du, onura fiskalei dagozkien kopuruak kenduta, lehen esan dugun bezala.

Beheko taulan ikus daitekeenez, **Osasun** Saila da, oraindik ere, **aurrekontu-zuzkidura handiena** duena (aurrekontu osoaren %23,1), eta horren ostean, Ekonomia eta Ogasun Saila (guztizkoaren %20,3) eta Hezkuntza Saila (%15,9).

Aurrekontu-zuzkiduraren araberrako ordena lehengo bera da. Ekonomia eta Ogasun Saila da 2004tik hona gehien hazi dena (%9,8), eta ondoren Nafarroako Parlamentua (%9,6). Murrizketa nabarmenena izan duena Kultura eta Turismo Saila izan da (%17,1), atzetik Toki Administrazioa duelarik (%14,8).

**2005erako AURREKONTU PROIEKTUA eta 2004koarekiko
BILAKAERA. NAFARROA**


SAILAK	2005			2004
	€	Guzt. %	BPG %	BPG %
Osasuna	673.321.138	23,1	4,7	4,7
Ekonomia eta Ogasuna	591.965.460	20,3	4,1	4,0
Hezkuntza	462.691.762	15,9	3,2	3,4
Toki Administrazioa	244.891.019	8,4	1,7	2,1
Gizarte Ongizatea, Kirola eta Gazteria	191.442.606	6,6	1,3	1,4
Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lana	171.577.173	5,9	1,2	1,2
Lehendakaritza, Justizia eta Herrizaingoa	156.271.566	5,4	1,1	1,2
Herri Lanak eta Garraioak	133.677.499	4,6	0,9	1,0
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikagaiak	116.213.018	4,0	0,8	0,8
Ingurumena, Lurralde Ant. eta Etxebizitza	104.135.137	3,6	0,7	0,7
Kultura eta Turismoa - Vianako Printzea Erak.	51.035.132	1,8	0,4	0,5
Nafarroako Parlamentua	13.747.866	0,5	0,1	0,1
Nafarroako Kontseilua	589.417	0,0	0,0	0,0
GUZTIRA	2.911.558.793	100	20,2	21,1

Iturriak: Nafarroako Gobernu eta Instituto de Estadística de Navarra

2005erako aurrekontuetan islatutako gastua **BPGaren %20,2koa** da; hortaz, Nafarroako ekonomian 2005ean sortzen diren 100 eurotik 20,2 gastu publikora bideratuko dira. Ehuneko horrek **BPGaren 0,9 puntuko jaitsiera** adierazten du **2004koaren aldean** (BPGaren %21,1). 2004ko ehunekoa mantenduko balitz, 2005ean gastatzea aurreikusten dena baino 133,1 milioi euro gehiago gastatu beharko lituzkete, edo, bestela esateko, Nafarroako Gobernuak 2004an baino 230,1 euro gutxiago gastatuko ditu pertsona bakoitzeko.

Gastu publikoak ekonomian duen pisuak gorabehera arinak izan ditu 1998tik hona, baina epealdian zehar erakusten duen behe-ranzko joera argia guztiz nabarmena da 2005ean. **Gastu publikoaren pisua BPGaren 1,5 puntu urritu da 1998tik hona**; horrek esan nahi du 2005ean Nafarroako Gobernuak 1998an baino 383,4 euro gutxiago gastatuko dituela nafar bakoitzeko.

**GASTU PUBLIKOAREN PISUAREN BILAKAERA (BPG %).
NAFARROA, 1998-2005**



Iturriak: Nafarroako Gobernua eta Instituto de Estadística de Navarra

2. DIRU-SARRERAK

a) Aurrekontuetako emaitza

Nafarroako Gobernuak bilduko duen beste gastatzea aurreikusi du, beraz, aurreko urtealdietan bezala, **2005eko ekitaldia aurrekontu-orekarekin ixteko asmoa du.**


b) Gastu fiskalak

Gastu fisikaletan, **1.266,2 milioi euro** islatu dira aurrekontuetan, hau da, gastu horiengatik ez balitz bilduko liratekeen diru-sarreraren %30,3.

Gastu fiskalak **BPGaren %8,8ren** bestekoak dira 2005ean.

Gastuon %51,7 zeharkako zergei dagokie, eta %48,3 zuzeneko-ei. Gastu fiskal osoan ehunekorik handiena dagokion zerga BEZa da (%46,7), eta horren ostean, PFEZa (%29,5).

GASTU FISKALARI ETA AURREIKUSITAKO SARREREI SARRERA
TEORIKOETAN DAGOKIEN %. NAFARROA, 2005




Iturria: Nafarroako Gobernua

c) Zor publikoa

Azken urteotan zor publikorik jaulki ez eta urtealdiak superabitarekin itxi izan direnez, **zor publikoak ekonomian duen pisua urrituz doa**, ondoko grafikoan egiaztatu daitekeen bezala. Zor publikoa BPGaren %7,3 zen 1998an, eta beraren pisua murriztuz joan da urtez urte, 2005ean BPGaren %4,4 besterik ez izateraino.

ZOR PUBLIKOAREN PISUAREN BILAKAERA (BPG %).
NAFARROA, 1998-2005



Iturriak: Nafarroako Gobernua eta Instituto de Estadística de Navarra

c) Zerga-iruzurraren aurkako borroka

2005ean, zergak ikuskatzeko baliabideak ugaritzeko asmoa dago, eta aurrerantzean 2 pertsona gehiago arituko dira zeregin horretan. Oso egitate positiboa izan arren, ez da inondik ere nahikoa. Dena den, 2005ean, 350 ikuskapen egitea aurreikusten da, 2004ko kopuru bera, alegia. Beraz, plantilla handiagoa izateak ez du esan nahi zergadun gehiago ikuskatuko direnik. Oraingoa ez da hori gertatzen den lehenengo urtea; izan ere, 2004an ere 2 pertsona gehiago hasi ziren plantillan lanean, baina egin beharreko ikuskapenen kopurua bere horretan mantendu zen (350). Ondorioz, **2003tik hona 4 pertsona gehiago dihardute zergen ikuskaritzan, baina ikuskapenen kopurua orduko bera da.**

Ikuskapenerako zuzenduriko **baliabide ekonomikoek** ere (BPGaren %0,0134) agerian uzten dute Nafarroako Gobernuak gai honi ematen dion **garrantzi urria**, murriztu egiten direlarik gainera aurreko urtearekiko.

ZERGEN IKUSKARITZARI BURUZKO INFORMAZIOA.
NAFARROA, 2003-2005

	2003	2004	2005
BALIABIDE PERTSONALAK	31	33	35
ZERGADUNEN KOPURUA	350	350	350
IKUSKAPEN GTU. BPG %	%0,0125	%0,0151	%0,0134

Fuente: Gobierno de Navarra


Hortaz, arlo horretako lehengo arazoek, hots, ikuskatutako zergadun kopuru urriak eta, ondorioz, lanekoak ez diren errentetan dagoen zerga-iruzurraren garapenak, bere horretan dira. Izan ere, ikuskatutako zergadunen ehunekoa %0,2 ingurukoa da.

3. OSASUNA

Sarreran azaldu dugunez, Osasun Saila da gastuari dagokionez garrantzi handienekoa: esleitu zaizkion 673,3 milioi euroak **BPGaren %4,67** dira eta. Ehuneko horrek **jaitsiera txikia** erakusten du sailak 2004an zuen pisuaren (BPGaren %4,74) aldean.

Osasuneko gastu publikoaren pisuak gorabeherak izan ditu 1998tik aurrera, eta garrantzitsuena 2002koa izan zen (BPGaren 0,35 puntuko hazkundera). Hala ere, gastua berriro jaitsi da eta, ondorioz, beraren pisua 1998ko maila berean (BPGaren %4,6) dago ia.

OSASUNeko GASTU PUBLIKOAREN PISUAREN
BILAKAERA (BPG %). NAFARROA, 1998-2005



Iturriak: Nafarroako Gobernua eta Instituto de Estadística de Navarra


Farmaziako prestazioak 147,3 milioi eurokoak dira, hots, BPGaren %1ekoak. Horrek gezurtatu egiten du, Nafarroan ere, erre-zeta medikoen aurrekontu handiegiaren teoria.

Lan-osasunerako zuzkidura 4,6 milioi eurokoa da, alegia, BPGaren %0,03 besterik ez.

4. HEZKUNTZA

Hezkuntza Saila hirugarren garrantzitsuena da, aurrekontuei erreparatuta. Sail 462,7 milioi euroko zuzkidura esleitu zaio, hau da, 2005eko **BPGaren %3,2**. Horrek **BPGaren 0,1 puntuko jaitsiera** adierazten du **1998koaren aldean**; hala ere, urripenik handiena 2004tik hona jasan du (BPGaren 0,24 puntuko jaitsiera, hain zuzen ere).

HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOAREN PISUAREN
BILAKAERA (BPG %). NAFARROA, 1998-2005



Iturriak: Nafarroako Gobernua eta Instituto de Estadística de Navarra

Euskararekin zerikusia duten aurrekontu-sailek murrizketa nabarmenak jasan dituzte proiektuan. 2005eko zuzkidura 5,2 milioi eurokoa da, 2004koa baino %26,5 txikiagoa, alegia. Euskararako gastu publikoa honako hiru atal hauetan banatzen da:

- "Vascuence" deritzotenaren irakaskuntzaren garapenari 1,6 milioi euroko zuzkidura esleitu zaio; horrek %41,6ko urripena adierazten du. Murrizketarik handienak nozitu dituen atala da hori.
- Unibertitate eta hizkuntza-politikorako zuzendaritza nagusiaren jarduerak 780.000 euroko aurrekontua dute, 2004koa baino %24,5 txikiagoa, hain zuzen.
- Hizkuntzaren programazio, ikerketa eta garapenerako, 2,9 milioi euroko zuzkidura aurreikusi da; hortaz, %15,3 urritu da, 2004tik hona.

EUSKARARAKO GASTU PUBLIKOA NAFARROAN. 2004-2005

	2005		2004		Aldakuntza %
	€	BPG %	€	BPG %	
Euskararen irakaskuntz. garapena	1.550.258	0,01	2.655.643	0,02	-41,6%
Unib. eta Hizk. Polit. Zuz. Nag.	779.948	0,01	1.033.375	0,01	-24,5%
Hizkuntz prog., ikerketa, garapena	2.855.060	0,02	3.370.232	0,02	-15,3%
Guztira	5.185.266	0,04	7.059.250	0,05	-26,5%

Iturria: Nafarroako Gobernua

5. ETXEBIZITZA

Etxebizitzarako, 65,9 milioi euroko zuzkidura aurreikusi da (kopuru horretan ez daude sartuta etxebizitza arloko gastu fiskalak), hots, 2005eko **BPGaren %0,5**. Ehuneko hori 2004koa baino 0,1 puntu handiago da, eta 2002 eta 2003koak baino 0,2 puntu handiagoa; baina ez da inola ere etxebizitzaren egoera larria konpontzeko hainakoa.

Etxebizitzako **zerga-arintzei** dagokien kopurua (124 milioi euro) etxebizitzako **gastu publikoaren** (65,9 milioi euro) ia **bikoitza** da.

2001ean, Nafarroako Gobernuak 2001-2004rako Etxebizitza Planari ekin zion. Planaren helburua 4 urtealdi horietan babespeko 10.000 etxebizitza eraikitzea zen. 2004rako, babespeko 2.750 etxebizitza eraikitzeko helburua ezarri zuen, baina 645 etxebizitza besterik ez ziren eraiki, hots, Etxebizitza Planean zehaztutakoaren %23,5. Ildo horretan, 2004a izan da planaren konplimendu-maila txikieneko urtea; izan ere, 2001ean, proposatutako etxebizitza babestuen %72 eraiki ziren; 2002an, %59,1, eta 2003an, %35,4. Beraz, planak aurrera egin ahala, beraren konplimendu-maila gero eta txikiagoa da, babespeko etxebizitzak eraikitzeari dagokionez.

Hortaz, planak zehaztutako helburuak **errealitatetik oso urrun daude**. Planaren 4 urteetan zehar, 4.594 etxebizitza besterik ez dituzte eraiki, hots, guztira planaren %45,9 baino ez da bete.

**NAFARROAKO 2001-2004 ETXEBIZITZA
PLANAREN KONPLIMENDUA**

	2001	2002	2003	2004	GUZTIRA
AURREIKUSITAKO ETXEB. BABES.	2.250	2.350	2.650	2.750	10.000
AMAITUTAKO ETXEB. BABES.	1.621	1.390	938	645	4.594
ERAIKITAKO ETXEB. BABES. %	%72,0	%59,1	%35,4	%23,5	%45,9

Iturria: Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Saila

Oharrak

Oharrak
